



# HONDAKINAK

Urola Kostako Eskolako Agenda 21. 2018-2019 ikasturtea

---

## ZARAUZKO UDAL FOROA 2019-05-08

**Bileraren lekua:** Udaletxean.

**Hasera eta amaiera:** 9,30-10,00 entsegua; 10,00-11,00 Udal foroa

---

### Udal forora bertaratutakoak:

#### Zarauzko udala:

- Xabier Txurruka, Zarauzko alkatea.
- Gloria Vazquez, Gizarte Politika eta Agenda 21eko zinegotzia.
- Nerea Ollokiegi, Agenda 21eko teknikaria.
- Jesus Arana, Ogasun zinegotzia eta Udal Elkarteko lehendakariordea.

#### Zarauzko ikastetxeak:

- Lizardi BHI: ikasleak eta irakaslea
- Monte Albertia Lanbide Heziketa: ikasleak eta irakaslea
- Oteiza Lizeo politeknikoa: ikasleak eta irakaslea (azterketa zutenez, 10:30tar joan behar izan dira).
- Antoniano Ikastetxea: ikasleak eta irakaslea
- Orokieta HLHI: ikasleak eta irakaslea
- La Salle: ikasleak eta irakaslea
- Salvatore Mitxelena: ikasleak eta irakaslea

#### Ingurugela:

- Edurne Huesa

#### Ondoan, S.Coop.:

- Leire Egaña
- Amaia Unzalu

---

## HELBURUAK

1. Ikasturtean zehar egindako lanaren aurkezpena egitea.
  2. Zarauzko ikasleek "hondakinak" gaiaren inguruko diagnostikoa egin ondoren, Udal ordezkariari luzatzen dizkieten proposamenak aurkeztea, herriaren egoera hobetzeko helburuarekin.
  3. Zarauzko ikasleek "hondakinak" gaiaren inguruko egoera hobetzeko hartzen dituzten konpromisoak aurkeztea.
  4. Ikasleen galderak, zalantzak edo bestelako ekarpenak bideratzea.
-



# HONDAKINAK

## Urola Kostako Eskolako Agenda 21. 2018-2019 ikasturtea

### Saioaren bilakaera:

**9,30-10,00:** Entsegu orokorra.

**10,00-10,05:** Monte Albertiako zuzendariaren eta Zarauzko alkatearen sinadura ekitaldia

Saioari hasiera emateko, Zarauzko Udalak bertaratutakoei ongietorria eta eskerrak ematen dizkie.

Ingurugelak Eskola Agenda 21eko helburuak azaldu eta aurten Monte Albertia LHII ikastetxea lehen aldiz parte hartu duela adierazten du eta ongietorria ematen zaio. Ondoren, Eskolako Agenda 21eko hitzarmenaren sinadura egiten dute Nora Amorena zuzendariak eta Xabier Txurruka alkateak.

**10,05-10,20:** [Ikasturtean zehar egindako lana aurkezten dute ikasleek beraien](#)

Sarrera moduan, hondakinak zergatik diren arazo bat azaltzen dute.

Ondoren, ikasturtean zehar ikastetxe bakoitzak ikastetxean aurrera eramandako hainbat ekintza esanguratsu aipatu ditu.

Udal diagnostikoari begira, hondakinen egoera ezagutzeko ibilbideak eta establezimenduetan galdetegiak egin dituzte ikasleek eta ateratako ondorio nagusiak aipatu dizkiote udalari,

Komunikazio aldetik, era ezberdinetan zabaldu dute egindako lana ikastetxeetan, blogak, txoko berdea, sareak, etab.

Foro honen aurretik beste bi foro egin dira: otsailean iazko konpromiso eta proposamenen jarraipena egin zen Udal Jarraipen foroan, eta apirilean, Eskolarteko foroa ospatu zen, egindako lana amankomunean ipini eta udalari, udal foroan aurkezteko konpromiso eta proposamenak lehenetsi zituzten ikasleek.

**10,30-10,50:** 2018-2019 ikasturtean lehenetsitako proposamen eta konpromisoen aurkezpena

Ikasturte honetan adostutako proposamen eta konpromisoak aipatu dituzte ikasleek eta ondoren, udalak erantzuten du:

### Lehen Hezkuntza

#### A) Hondakinen kudeaketa eta bilketa hobetu

##### 1. Proposamenak

1. Nahiz eta parkeetan sailkatzeko edukiontzia jarri dituztela ikusi dugun, kaleetan, Astiko belardian eta Zarautz-Getaria bidean (tuneletik aurrera) jartzea proposatzen dugu.
2. Malekoian zaborrontziak urte osoan zehar jartzea. Badakigu itsasaldiak direla eta kendu egiten direla baina urtean 4-5 izaten dira eta faltan botatzen dira. Beste irtenbide bat bilatzea proposatzen dugu.

##### 2. Konpromisoak

1. Sortzen ditugun hondakinak dagokion ontzira botako dugu
2. Norbaitek sailkatzeko zalantzak baditu, gure artean argitu
3. Ahalik eta hondakin gutxien sortzeko, benetan behar duguna erosi, erosketak egiterakoan bildukin gutxiago duten produktuak erosi eta telazko poltsak eraman.

Udalaren erantzuna: edukiontzi gehiago jartzea ondo ikusten dute; adibidez, Asti parkean



# HONDAKINAK

## Urola Kostako Eskolako Agenda 21. 2018-2019 ikasturtea

edo Zarautz-Getaria bideko toki zehatz batzuetan. Ontzirik ez dagoen lekuetan, gizartea ere jabetu behar da gorde dezakeela eta geroago botu.

### **B) Herritarrak informatu (herritarrek hobeto sailkatzeko informazio ekintzak)**

#### 3. Proposamenak

1. Herritarrek hondartzan zaborrak lurrera ez botatzeko, megafoniaz gogorarazi, kartelak ipini eta zaborra sortzen badute, etxetik ekarritako poltsa batean gorde.
2. Herritarrak sensibilizatzeko kanpainak egiten jarraitu, adibidez, hondartza garbitzeko txangoak antolatu.
3. Lurrera zaborra botatzen duenari isuna jarri.

#### 4. Konpromisoak

1. Hondartzara goazenean, sortzen dugun zaborra gorde, etxetik ekarritako poltsetan.
2. Udalak antolatutako kanpainetan parte hartu.

Udalaren erantzuna: Hondartzako megafonian esaten diren oharrak aprobetxatu eta hondakinak lurrera ez botatzeko gogoraraztearena oso ideia ona dela esan dute. Hondartzarako txangoei begira, uda aldean antolatzea pentsatu dute.

Azkenik, isunei dagokionez, normalean, isuna jarri baino lehen informatzen dutela komentatu dute, helburu nagusia kontzientziazioa eta herritarrak informatzea delako.

### **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilera eta Lanbide Heziketa**

### **A) Hondakinen kudeaketa eta bilketa hobetu**

#### 5. Proposamenak

1. Ziurtatu leku guztietan hondakinak sailkatzeko ontzi guztiak daudela eta "zaborrontzi orokorrak" kendu.
2. Pilak birziklatzeko ontzi gehiago jarri kalean.

#### 6. Konpromisoak

1. Ikastetxe ingurua txukun eta garbi mantenduko dugu, lurrean ikusten ditugun hondakinak dagokion ontzira botaz.

Udalaren erantzuna: Hondakinen kudeaketa sistema berriarekin, %40tik %70ra igo da sailkatze tasa. Udala ere "zaborrontzi orokorrak" pixkanaka pixkanaka kentzearen alde daude, baina oraindik gizartea (batez ere nagusiagoa den biztanleria) guztiz kontzientziazioa ez dagoela uste dute. Beraz, informazio gehiago eman behar da sailkatzeko ontziak leku guztietan ipini baino lehen. Horretaz aparte, bostgarren edukiontziaz gain, zigarrokinak botatzeko seigarren edukiontzi bat gehitzea dute aurreikusita. Pilak birziklatzeko ontzi gehiago jartzearen alde daude baita ere, baina ez pilak bakarrik, bonbilak bezalako produktuak ere ontzi hauetara botatzeko aukera emango lukete.

### **B) Herritarrak informatu eta sentibilizatzeko ekintzak (herritarrek hobeto sailkatzeko informazio ekintzak)**

#### 7. Proposamenak

1. Kontzientziazio kanpaina bat egin hondakinen sailkapen desegokiak sortutako kutsaduraren inguruan eta Zarautzen hondakinak ondo sailkatzen direla bultzatzeko.
2. Hondakinak ondo sailkatzeko gida bat sortu: paperean, app bat.



# HONDAKINAK

## Urola Kostako Eskolako Agenda 21. 2018-2019 ikasturtea

3. Kale hezitzaileek komertzioetan hitzaldi laburrak egitea, langileek izan ditzaketan zalantzak argitzeko.
  4. Hondakinen murrizketarekin konprometituak eta ekintzak burutzen dituzten merkatariei, pegatina bereizgarri bat eman, kontsumitzaileok ezagutu ditzagun eta bide batez gu kontzientziazteko.
8. Konpromisoak
1. Hondatza, biotopoa oingurunea... garbitzeko proiektuak jarritz gero, parte hartzen saiatuko gara.
  2. Zigarroak lurrera ez botatzeko ekintzak sustatuko ditugu Batxilergokoak (edukiontzia gehiago, gelatan informatu...)
  3. Monte Albertia ikastetxean sortutako eskuorriak Zarautzeko ileapaindegi eta estetika zentroetan banatu Udalarekin elkarlanean.

Udalaren erantzuna: orokorrean proposamen egokiak direla ikusten du Udalak. Adibidez, aplikazio bat garatzeko ari dira pentsatzen gaur egun. Kale hezitzaileak dendariekin lanean ari dira jadanik. Komertzioetan pegatinak jartzeari buruz, plastikorik gabeko kanpainaren baitan parte hartzen duten janari dendek pegatina badute jadanik, baina kanpaina horretan gehiago sakondu nahiko lukete eta komertzio guztietara zabaldu. Azkenik, hondartzan zigarrokinak itzaltzeko ontziak ipini dituzte udari begira proba moduan.

### **C) Plastikoa murriztu (plastikoaren kontsumoa eta erabilera murrizteko ekintzak)**

9. Proposamenak
1. Komertzioetan fruitu eta barazkiak granelean hartu ahal izateko plastikozko poltsak erabat kentzen direla ahalegindu.
  2. Oihalezko poltsak bultzatu komertzioetan haserako kopuru bat oparitzuz.
  3. Egun gehiagotara luzatu plastikorik gabeko eguna.
10. Konpromisoak
1. Antzeko produktuen artean ontzi eta bilgari gutxiena duten hori aukeratuko dugu.
  2. Otartekoan erabiltzen dugun zilarrezko paper gutxiago erabiliko dugu.
  3. Fruta erostean ordaindu behar denaren pegatina fruta bertan itsatsi eta horrela plastiko gutxiago erabiltzera konprometitzen gara.

Udalaren erantzuna: Bildukinei begira, dendetan bildukin gutxien dituzten produktuak bultzatzea oso garrantzitsua ikusten du Udalak. Plastikorik gabeko eguna asteko beste egunetara luzatzea oso egokia dela uste du Udalak, helburua hori dela esaten du.

Maiatzaren 31ean, arratsaldean, **Kantauri Fest!** antolatuko da. Egingo diren ekintzak:

- Desfilea: moda iraunkorra. Aurkezle lanetan Julen Yanzi
- Comic bat hainbat paneletan ikusgai jarriko da
- Plastikoa arazoan jabetzeko EMAUSEK egindako beste panel batzuk jarriko dira.
- Eskultura bat egingo da bertan jartzeko ( plastikoekin eginda)
- Haurrentzako tailerrak
- Dantza garaikidea Saioa

**10,50:** Amaitzeko, ikasle bozeramaileei zein ikusle gisa etorritako ikasle eta irakasleei galderak egin edo zalantzen berri emateko aukera eman zaie. Horrela, Getariako bidean txakur kakak jasotzeko ontziak jartzea proposatu da.



# HONDAKINAK

## Urola Kostako Eskolako Agenda 21. 2018-2019 ikasturtea

Galdera edo eskaera gehiago ez zegoela ikusita, Xabier Txurruka alkateak bertaratutako guztiei eskerrak emanez saioa amaitutzat eman du, eta hamaiketakoa hartzeko gonbitea luzatzen du.

### Argazkiak:



Ikasleek erabilitako aurkezpena ([linka](#))

[Bideoa Erlo telebista](#)

[Albisteak](#)

[Argazkiak](#)